

Noa Barandiaran Aiestaran

D maila • 3 saria

Ni, Noa Barandiaran, 12 urteko neska beasaindarra naiz. Argia, barne-mundu aberats eta irudimen handikoa naiz. Antzerki munduak betetzen nau gehien, baina baita irakurtzeak pianoa jotzeak eta idazteak ere. Maleta beti dut prest edozein bidaiatarako! Kultura berriak eta aniztasuna ezagutzen izugarri gozatzen dut. Nire ametsetako bat Japonia bisitatzea da, hainbeste interesatzen zaizkidan mamuei buruzko kontakizunen irakatsiak barneratzeko. Nire lanaren inguruan gehiago ezagutu nahi baduzu, irakurri "Argirako bide" idazlana.



ARGIRAKO BIDE

Han nengoen, ni, bakarrik. Ezin nuen egoera hura luzaroan ezkutatu. Huts egin nion neure buruari... Nola azaldu etxekoei egoerak gainezka egin zidala? Ezin nuen horrela jarraitu. Aurretik nuena ahaztuko nuen, atzera atzean utzi nuena sentitzeko. Sufrimenduari bukaera emateko aukera bakarra neukan: nire buruaz beste egitea.

Nire gorpua ikusi nuen. *"Zer da hau? Non nago? Baina, baina, ez da posible, ezin liteke... horko hori ni naiz eta!"* Okerrago sentitzen nintzen. Hotzak hartu ninduen. Argiaren bila nenbilen itsu-itsu, baina ez nuen aurkitzen, eta ikaratu egin nintzen. Eta nire arima gizakien dimentsioan kateatuta geratu bazen?

Haserre bizian kalean barna nenbilela, gazte talde batengana hurbildu, eta atentzioa erakarri nahian nire besoek gazteetako bat zeharkatu zuten. Energia huts bat nintzela konturatu nintzen, mundutik erabat isolatua.

Laguntza behar nuen, sentituko edo ikusiko ninduen norbaiten laguntza. Bila eta bila aritu nintzen, eta azkenean aurkitu nuen norbait. Mutiko bat zen, 11 urte ingurukoa, uste dut Finn zela bere izena. Ohean zegoen goxo-goxo. Bere gelan sartu nintzen, zerbait sentituko zuen itxaropenez. Ez ninduen entzuten. Gerturatu nintzenean, nire semearekin egoten nintzeneko oroitzapenak berritu zitzaizkidan. Bat-batean, mutikoak zirrara bat barrendu eta oheko tapakiekin buru osoa estali zuen babes moduan. Sentituko ote ninduen?

Emaztea eta nire semea bakarrik utzi nituen, senarrik eta aitarik gabe. Gau batean nire emaztearen logelara joan nintzen; han negarrez ikusteak bihotzean min eragin zidan, zauri orbainezin baten itxurako min etsia. *"Baina zer egin dut? Nola izan naiz hain neurekoia? Gorroto dut neure burua, familia suntsitu dut. Gorroto dut, gorroto neure burua!"* Une hartan ezin nuen han egon, nire emazteari begira. Barkamena eskatu nahi nion, damu nintzela adierazi. Paretako erlojuko orratzak neure biziarekikoak egin nituen ordura atzeratu nituen eta emaztearen eta

bion ezkontzako argazkia ere bota nuen han nengoela adierazi nahian.

Auzokoak bisitatzen hasi nintzen. *"Nor bait niregana hurbilduko balitz, nire bakardadea eramangarriagoa izango litzaidake..."*

Finnen etxera joaten jarraitu nuen egun horietan. Behingoz bazuten nire zantzurik! *"Gauetan hotza sentitzen dut. Zerbait niregana hurbiltzen dela sentitzen dut. Beldur naiz, ez dut gustuko. Baina nola adieraziko diot amari? Ulertuko al nau? Egunak dira hoztasun horrek hartaratu nauela, batzuetan gizon itxura hartzen diot..."*

- Finn, gauetan arraro xamar ikusten zaitut. Badakit ez duzula gustuko ohera joatea, baina azken aldian gehiegi atzeratzen duzu lotarako ordua eta ohetik makina bat aldiz deitzen diguzu. Ongi al zaude? -Esan zidan amak.

- Ez dakit... (Arraro ikusten nauela? Zer esan nahi dit horrekin amak? Benetan asmatuko al du beldur naizela? Zer pentsatuko du, erotuta nagoela? Agian psikologoarengana eramango nau, edo botikaren bat emango dit...).

- (Zer arituko da pentsatzen nire Finn? Eskolan arazoren bat izango ote du lagunekin? Nota oso onak ateratzen ditu...) Finn, entzuteko prest nauzu, edozer dela ere, hemen gaude behar denerako.

- Ama, utzi nazazu bakean, ez dut hitz egin nahi!

- (Ama ohean dago) Baina hori ez da normala, zer gertatzen ote zaio?

- Jane. -Esan nion han nengoela konturatzeko.

- Aaaa!

Denak lo daude. Amari birritan deitu behar izan diot eta nire ohera etorri behar izan du lasaituko banintzen. Bere onetik irtenda dago, momentu ona izango al da laguntza eskatzeko?

- Ama, etorri nire gelara mesedez! Garrantzitsua da!

- Ea ba, tira. Logale naiz eta badira egun batzuk ez dudala lorik egiten.

- Ama, gauetan zurekin egoteak seguru sentiarazten nau. Badakizu zergatik? Hor, pianoa dagoen ertz horretan, gizon bat ikusten dut; hotza eragiten didan gizon bat. Ni ukitzen saiatu da, edo nirekin komunikatzen.

- Zuk ere sentitzen al duzu? Niri ere etorri zait. Eta belarrira nire izena esan dit.

- Ama. Beldur naiz, zerbait egin behar dugu.

Ama ixilik dago, interneten bilaketak egiten ditu eta suizidioaren inguruan master bat egin du egun gutxi batzuetan. Gizonari zer gertatzen zaion ulertu nahi du.

- Finn, etor zaitez momentu batean mesedez. Informazio garrantzitsua aurkitu dut. Dirudienez, suizidioaren helburuaren arabera da argitasunerantz joatea erraza izatea edo ez. Helburua helbururik eza bada, hau da, sufrimenduaren aurrean amore ematen bada, argitasuna ia hautemanezina da eta arima dimentsio honetan kateatuta geratuko da naturalki hiltzea tokatzen zaion arte. Bestalde, ingurukoen onerako bada, izugarrizko zama delako, hiltze naturala bailitzan, argitasunerantz joatea erraza da. Eta gizon hori hemen harrapatuta geratu bada? Nola lagun diezaiokegu? Ezin da gure etxean geratu.

- Ama, eskelak begiratzen aritu naiz eta zerbait interesgarria topatu dut! Hemen, gizon baten izena

agertu zait. Gure etxetik gertu bere buruaz beste egin zuen gizon baten izena. Bera izan daiteke, ezta? John du izena eta orain dela hiru urte egin zituen bere biziarekikoak”.

Hain nengoen bakarrik, sufrimendua are jasanezinagoa zen neure buruaz beste egin nuenetik... Eskerrak Finnek eta Janek sentitzen nindutela. Banekien etxean gorriak pasatzen ari zirela nire presentzia zela-eta, baina desesperatuta nengoen. Finni seinale bat ematea pentsatu nuen...

“Gaua da, denak ohean daude. Finnen logelara noa.

- Idatzi eskutitza.

- Zer? Amaaaaaaa!

- Zer da Finn, John berriro ere?

- Bai, eta hitz egin dit.

- Zer esan dizu?

- Eskutiz bat idazteko. Baina nori?

- Familia zuen, ezta?

- Bai, emaztea eta semea.

- Beraiei idatzi behar diezu!

- Bihar bidaliko diet eskutitza.”

Gustura sentitu nintzen. Orduan izango nuen emazteari eta semeari damu nintzela adierazteko egokiera.

Iritsi zitzaion emazteari eskutitza. Negarrez ari zela ikusi nuenean, besarkatzeko gogoia piztu zitzaidan. Bihotzetik ari zen. Zein gaizki sentitzen nintzen, hain izan nintzen neurekoia... baina ezin atzera bueltatu.

- “Finn! Uste dut badakidala nola amaitu honekin guztiarekin! Etor zaitez azkar!

- Bai ama,

- Kandela bat jarriko dugu gatzez inguratuta, eta kandelan John izena idatziko dugu. Horrela argitasuna ikusteko gai izango da. Ea, oraintxe egingo dugu!”

- Kandela bat nire izenarekin? Ze onura ekarriko zidan horrek? Frogatzera joan beharko nuen, ezta? Hantxe ikusi nuen suak zabaltzen zuen argia. Hura zen nire argia, eta argirako bidea.